

**SALGAI
DAGO**

SALTZAILEAREN EDO ERRENTATZAILEAREN BETEBEHARRAK

Euskal Autonomia Erkidegoko eraikinen eraginkortasun energetikoaren ziurtapenari eta ziurtapenaren kontrol-prozedurari eta erregistroari buruzko **otsailaren 26ko 25/2019 Dekretuak** honako betebeharrak ezartzen dizkie salgai edo alokairuan jarriko diren higiezin jabeei:

- 1** Higiezinaren Eraginkortasun Energetikoaren Ziurtapena edukitzea (4. artikulua).
- 2** Eraginkortasun Energetikoaren Ziurtagiria inskribatzea Euskal Autonomia Erkidegoko Eraginkortasun Energetikoaren Ziurtagirien Erregistroan, **eta, hortaz, dagokion Eraginkortasun Energetikoaren Etiketa** lortu izatea higiezinaren salmentaren edo alokairuaren publikitate ororen aurretik (4. eta 21. artikulua).
- 3** Eraginkortasun Energetikoaren Etiketa higiezinaren salmenta edo alokairua eskaintzen, sustatzen edo iragartzen duenaren (higiezin agentziak, web-atariak edo hedabideak) eskura jartzea, eskaintza, sustapen edo publikitate orotan kalifikazio energetikoa sartzeko betebeharra bete dezaten (4. artikulua).
- 4** Higiezina erosi edo alokatzeko interesa duen orori Euskal Autonomia Erkidegoko Eraginkortasun Energetikoaren Ziurtagirien Erregistroak luzatutako **Eraginkortasun Energetikoaren Ziurtagiriari dagokion erregistro-zenbakia ematea**, hark higiezinari buruzko informazioa eskatzen duen unean bertan (4. eta 34. artikulua).
- 5** Higiezinaren erosleari edo errentariari ematea, erosketa edo errentamendua formalizatu aurretik, **Eraginkortasun Energetikoaren Ziurtagiria, ziurtapen energetikoaren prozedurari dagozkion artxibo informatikoena eta** Euskal Autonomia Erkidegoko Eraginkortasun Energetikoaren Ziurtagirien Erregistroan inskribatuta dagoela egiaztatzen duen **Eraginkortasun Energetikoaren Etiketa** (4. eta 35. artikulua).

Zer da Eraginkortasun Energetikoaren Etiketa?

Eraginkortasun Energetikoaren Etiketa ziurtagiri bat da, eta egiaztatzen du higiezinak Eraginkortasun Energetikoaren Ziurtagiri bat duela inskribatuta Euskal Autonomia Erkidegoko Eraginkortasun Energetikoaren Ziurtagirien Erregistroan. Lortutako eraginkortasun energetikoaren kalifikazio-maila adierazten du, eta ziurtagiriaren erregistro-zenbakia jasotzen du, eguneratua izan bada, baita haren baliozkotasun-epea ere.

Eraginkortasun Energetikoaren Ziurtagiriak eta dagokion Etiketak osotasun zatiezina osatuko dute. Bi dokumentu horiek erosleari edo errentariari entregatu behar zaizkio, ziurtagiri energetikoaren prozedurari dagozkion artxibo informatikoekin batera.

Aukerakoa al da?

Inola ere ez. Eraginkortasun Energetikoaren Etiketa ematea erosleak edo errentariak uko egin ezin dion eskubidea da.

Ziurtagiri energetikoak eraikinaren edo eraikinaren zati baten portaera energetikoari buruzko informazio erabilgarria ematen die erosi edo alokatu nahi duten pertsonai, baita eraikinaren eraginkortasun energetikoa hobetzeko gomendioak ere.

Zer esaten digu kalifikazio energetikoak?

Eraginkortasun energetikoaren kalifikazioa eraikinaren eskaera energetikoa funtzionamendu- eta okupazio-baldintza normaletan asetzeko behar den energia-kontsumoari buruzko kalkularen emaitza da. Eraikinak zazpi letra serie baten barruan sailkatzen ditu: G letra eraginkortasun txikieneko eraikinari dagokio, eta A letra eraginkortasun handieneko eraikinari, energia-kontsumoaren eta CO₂ emisioen arabera, tipologia eta kokapen bereko oinarri-eraikin batekin alderatuta.

Eraginkortasun Energetikoaren Ziurtagiria teknikari eskudunek sinatutako dokumentazioa da, eraikin baten edo haren zati baten ezaugarri energetikoei eta eraginkortasun energetikoaren kalifikazioari buruzko informazioa jasotzen duena.

Informazio zabaldu nahi izanez gero, Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Sailaren webgunean sar zaitezke esteka honen bidez:

www.euskadi.eus/ziurtagiri-energetikoa

**SIN
LA ETIQUETA DE
EFICIENCIA
ENERGÉTICA...**



**NO SE PUEDE
VENDER O
ALQUILAR**

EL INCUMPLIMIENTO SE SANCIONA

El incumplimiento de las obligaciones derivadas del Decreto 25/2019, de 26 de febrero será sancionado de acuerdo a la Ley 6/2003, de 22 de diciembre del Estatuto de las Personas Consumidoras y Usuarías, y a la Ley de Suelo y Rehabilitación Urbana, aprobada en su texto refundido mediante Real Decreto legislativo 7/2015, de 30 de octubre.



kontsumoBIDE

KONTSUMOKO
EUSKAL INSTITUTUA
INSTITUTO VASCO
DE CONSUMO



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

SE
VENDE

OBLIGACIONES DE LA PERSONA VENDEDORA O ARRENDADORA

El Decreto 25/2019, de 26 de febrero, de certificación de la eficiencia energética de los edificios en la Comunidad Autónoma del País Vasco, su procedimiento de control y registro, establece las siguientes **obligaciones para las personas propietarias de inmuebles que vayan a ser puestos en venta o alquiler:**

- 1 Disponer de la **Certificación de Eficiencia Energética del inmueble** (artículo 4).
- 2 Inscribir el **Certificado de Eficiencia Energética** en el **Registro de Certificados de Eficiencia Energética del País Vasco** y, por lo tanto, haber obtenido la **Etiqueta de Eficiencia Energética** correspondiente con anterioridad a toda publicidad de la venta o alquiler del inmueble (artículos 4 y 21).
- 3 Poner la **Etiqueta de Eficiencia Energética** a disposición de quien oferte, promocióne o publicite la **venta o alquiler del inmueble** (agencias inmobiliarias, portales web o medios de comunicación) para que puedan cumplir con la obligación de incluir la calificación energética, en toda oferta, promoción o publicidad (artículo 4).
- 4 Facilitar a toda persona interesada en la **compra o alquiler del inmueble** el número de registro del **Certificado de Eficiencia Energética** emitido por el Registro de Certificados de Eficiencia Energética del País Vasco, en el mismo momento en el que aquella solicite información del inmueble (artículos 4 y 34).
- 5 Entregar, a la **persona compradora o arrendataria del inmueble, antes de la formalización de la compra o arrendamiento, el Certificado de Eficiencia Energética, los archivos informáticos correspondientes al procedimiento de certificación energética y su Etiqueta de Eficiencia Energética** acreditativa de la inscripción en el Registro de Certificados de Eficiencia Energética del País Vasco (artículos 4 y 35).

¿Qué es la Etiqueta de Eficiencia Energética?

La **Etiqueta de Eficiencia Energética** es el documento que acredita que el inmueble dispone de un **Certificado de Eficiencia Energética inscrito en el Registro de Certificados de Eficiencia Energética del País Vasco**. Indica el nivel de calificación de eficiencia energética obtenido y contiene el número de registro del Certificado, si este ha sido objeto de actualización, así como el plazo de validez del mismo.

El **Certificado de Eficiencia Energética** junto con la correspondiente **Etiqueta** constituirán un todo indivisible. Ambos documentos deben entregarse a la persona compradora o arrendataria, junto con los archivos informáticos correspondientes al procedimiento de certificación energética.

¿Es opcional?

En ningún caso. La entrega de la **Etiqueta de Eficiencia Energética** es un derecho al que la persona compradora o arrendataria no puede renunciar.

La certificación energética proporciona información útil a las personas que quieren comprar o alquilar sobre el comportamiento energético del edificio, o parte del mismo, así como recomendaciones para la mejora de la eficiencia energética del mismo.

¿Qué nos dice la calificación energética?

La **calificación de eficiencia energética** es el resultado del **cálculo del consumo de energía necesario para satisfacer la demanda energética del edificio en condiciones normales de funcionamiento y ocupación**. Clasifica los edificios dentro de una serie de siete letras, donde la letra G corresponde al edificio menos eficiente y la letra A al edificio más eficiente según el consumo de energía y las emisiones de CO₂ comparadas con un edificio base de similar tipología y localización.

El **Certificado de Eficiencia Energética** es la **documentación suscrita por personal técnico competente que contiene información sobre las características energéticas y la calificación de eficiencia energética de un edificio o parte del mismo**.

Para ampliar información puedes acceder a la web del Departamento de Desarrollo Económico e Infraestructuras, del Gobierno Vasco, a través del enlace:

www.euskadi.eus/certificacion-energetica

ERAGINKORTASUN ENERGETIKOAREN ETIKETARIK GABE...



EZIN DA SALDU EDO ALOKATU

EZ-BETETZEA ZIGORTU EGINGO DA

Otsailaren 26ko 25/2019 Dekretuaren ondoriozko betebeharrak betetzen ez badira, zehapena ezarriko da, Kontsumitzaileen eta Erabiltzaileen Estatutuari buruzko abenduaren 22ko 6/2003 Legeak eta urriaren 30eko 7/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartutako Lurzoruari eta Hiri Birgaitzeari buruzko Legearen testu bateginak ezarritakoaren arabera.



kontsumoBIDE
KONTSUMOKO
EUSKAL INSTITUTUA
INSTITUTO VASCO
DE CONSUMO

